

Bilgarria

‘Bilgarria’ sinkopeak gorputz-mugimendu eta mugimendu historiko gisa adierazten duen ideian oinarrituriko zenbait eszenatan barrena egindako ibilbide bat da, eta Antonia Mercé «La Argentina» abangoardiako dantzariaren irudian gorpuzten da ideia hori (1890-1936).

1936ko uztailaren 18an, Donostiara bidaiatu zen La Argentina, Aita Donostiak (José Gonzalo Zulaika) haren omenez antolatutako euskal dantzen erakustaldi batera, eta bat-batean hil zen, gudaroste frankisten altxamenduaren eta Gerra Zibilaren hasieraren berri izan eta lau ordura. La Argentinaren heriotza oso esanguratsua da, Espainiako Bigarren Errepublikako behin-behineko gobernuaren domina jaso zuen lehen artista izan baitzen. Domina hori jasota, Errepublikaren ordezkari bilakatu zen nolabait, pertsonifikatutako alegoria.

‘Bilgarria’ lanak ahalegina egiten du artistak izan zuen asaldura fisikoa ulertzeko, sentimendu kolektiboarekin batera, historiaren lerroan izandako iskintxoaren isla gisa. Iskintxo horrek mugimendu sinkopatu baten forma hartzen du, eta zenbait unetan eta era desberdinetan errepikatzen da, artisten eskutik. Adibidez, Japoniako Kazuo Ohno artistak La Argentinaren figura berreskuratu zuen bere lehenengo dantzan, Hiroshimako eta Nagasakiko bonben erantzun gisa sortutako Butô lanean.

Gorputzeko eta historiako sinkopeak, erritmoko keinu konpasatu eta errukior gisa, eszena guztiak zeharkatzen ditu angelu desberdinetatik, eta Henri de Mondeville zirujauak XIV. mendean sortutako sinkope kontzeptuarekin jartzen da harremanetan; gizakiaren baitako errukirako mekanismoa da sinkopea, hau da, “krisialdian gorputzak beroa eta jariakinak banatzeko duen era”.

Bilgarria

Programa

Abenduak 01, 19:00

Auditorioko gelaurrea

1. Eszena

Agurra

Iñaki Azpillaga & Luis Carmona

15 minutu

••••

2. Eszena

Sinkopea

Patricia Caballero

20 minutu

3. Eszena

Oihana

Pedro G. Romero & Bobote

20 minutu

••••

-Bitarteko atsedenaldia-

Mesedez, egon aretoan atsedenaldia den bitartean

5 minutu

-ekitaldiartekoa-

Maskara

Camila Téllez

9 minutu

Azken eszena

Bizitza

Idoia Zabaleta

28 minutos

Hizketaldia artistekin